

## **HYGRID Proiektua: “Flexible Hybrid separation system for H<sub>2</sub> recovery from NG Grids”**

***NORTEGASek bazkide moduan parte hartzen du HYGRID proiektuan, Europar Batasuneko HORIZON2020 programaren esparruan finantzatutako ekimen bat dena, Fuel Cells and Hydrogen 2 Joint Undertaking ekimenaren barruan, eta honako kontratu zenbaki honekin: 700335.***

***Proiektuaren helburua da mintzetan oinarritutako teknologia hibrido berri bat diseinatzea, eskalatzea eta industrialki baldintza garrantzitsuetan erakustea, hidrogenoa gas naturaleko sareetatik zuzenean banatzeko.***

Proiektua hidrogenoaren banaketan oinarrituko da, eta hori mintzen konbinazioaren, banaketa elektrokimikoaren eta tenperatura-ozilazio bidezko adsortzioaren bidez egingo da, hidrogenoa berreskuratzearen kostu totala murriztu ahal izateko. Proiektuaren helburua da hidrogeno purua banatzeko sistema bat sortzea, < 5 kWh/kgH<sub>2</sub> eta < 1,5 €/kgH<sub>2</sub> potentziarekin eta kostuarekin, hurrenez hurren. Egunean 25 kg hidrogenorentzako pilotu bat eraikiko eta frogatuko da

Helburu hori lortzeko, HYGRID honako hauek osatutako partzuergoak garatuko du: Holandako Eindhoven, Hygear, Hyet Unibertsitatea, Suitzako Quantis, Italiako SAES, eta Espainiako Nortegas eta Tecnalia Research & Innovation Fundazioak.

